



### Garbigune berria zabaldu du Tolosaldeko Mankomunitateak Andoainen

Tolosako San Blas auzokoarekin batera, eskualdeko herritarrek beste garbigune bat izango dute ez ohiko hondakinak eramateko

2

### Tolosaldeko hainbat realzale izan da Leverkusenen, **billabonatarrak** adibide

Reala eta Bayer Leverkusenen partidan izan da Mikel Elizegí billabonatarra, eta bertan bizitakoa kontatu du Tolosaldeko Ataria-n

6



# tolosaldeko ataria



TOLOSALDEKO hitza<sup>info</sup>



Asteartea, 2013ko urriaren 8a. 1. urtea. 3. zenbakia. [www.ataria.info](http://www.ataria.info)



Atzo goizean garbitu zituzten Kilometroen ibilbideko gune guztiak Laskorain Ikastolako ikasle eta irakasleek elkarlanean. I. GARCIA LANDA

### AIMAR AGIRRESAROBETRIATLETA, BIKAIN ARITU DA ESPAINIAKOAN

Bartzelona-Maresme triatloi proban parte hartu du kirolari tolosarrak, eta bertan lortu du Espainiako Txapelketako hirugarren postua

7

### AIZKORA TXAPELKETAKO KANPORAKETA IZANGO DA **ASTEASUN**

Euskal Herriko lehen mailako Aizkora Txapelketa izango da larunbatean, 18:30ean.

7

### LAUBURU ARETO FUTBOL TALDEAK GALDU EGINDU PARTIDA

Denboraldiko laugarren partida, Quinto de Ebroren aurkakoa, 5-2ko emaitzarekin amaitu da

7

## Festaren biharamunean **lanean jarraitu dute herritarrek**

Nekatuta baina pozik, Laskorain Ikastolako kideek gogor egin dute lana Tolosa Kilometroen festaren aurretik zegoen bezala uzteko

2-3



*Egin zaitez atarikide!*

943-65 56 95

[ataria@ataria.info](mailto:ataria@ataria.info)



Hondakinak

# Garbigune berria dute eskualdeko herritarrek

Tolosako San Blas auzokoari Andoaingo Leioitz industrigunekoa gehitu diote; eskualdeko udal ordezkariak herritarrei bertara joatea eta erabiltzea eskatu diete

ASIER IMAZ

Eskualdeko herritarrek bigarren Garbigunea dute erabilgarri. Orain arte, ohikoak ez diren hondakinak, Tolosako San Blas auzora eramaten zituzten, bertan baitzegoen eskualdeko Garbigune bakarra. Atzo, Urnieta eta Andoain bitartean dagoen Leioitz industrigunean zabaldu zuten bigarrena. Bertan ematen den zerbitzua doakoa da, eta Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten 28 herrietako biztanleei zuzendua dago. Hauekin batera, urnietarrak ere erabilgarri izango dute Garbigunea, Tolosaldeko Mankomunitateak eta San Markokoak lortutako lankidetzaren hitzarmenari esker.

Inaugurazio ekitaldian, eskualdeko udal ordezkari ugari izan ziren, eta guztien izenean, mankomunitateko lehendakariak hitz egin zuen, Ainhoa Ugalde Irurako alkateak: «Hilabeteak pasa ditugu lanean, eta azkenean, gaurkoan poz handiz, gune hau martxan jartzeko eguna iritsi zaigu». Herritarrei, Tolosakoari eman zaion erabilpen bera ematea eskatu zien Ugaldek, San Blasko Garbigunean jendearen joan-etorria «handia» izan dela azalduz.

Andoainen hondakinak hamabi multzotan sailkatzeko aukera dago, horrez gain, hamalau hondakin

arriskutsu sailkatu ahalko dira. Mankomunitateko lehendakariaren esanetan, «helburua ahalik eta aukera zabalena ematea da, horrela, gehiago sailkatzearekin batera, zabortegetara gutxiago eramaten baita».

Hondakinen gaikako bilketarekin batera, Tolosan bezala, Andoaingo Garbiguneak badu beste zerbitzu bat: berrerabilgunea. Ainhoa Ugaldek horrela laburbildu du zerbitzu honen funtsa: «Norberak erabiltzen ez dituen baina oraindik ongi dauden tresna, altzari, aparatu elektriko etab. ekarri daitezke gune honetara, eta bertan egongo diren antzeko gauzak ere hartzeko aukera izango da. Erabiltzen dugun edozerk izan dezake bizi berri bat, beste norbaiten eskuetan, eta asmo horrekin sortua dago berrerabilgunea».

Tolosaldeko Mankomunitateko lehendakariak Andoaingo Garbigunea urrats bat gehiago dela esan du, «orain arteko norabidean», eta jarritako helburu «garbietara» iristeko ahaleaginean: «Tolosakoarekin batera, Andoaingoak, gehiago sailkatzea bideratzen lagunduko digu, eta beraz, zabortegetara ahalik eta gutxien eramatea lortuko dugu». Azkenik, Ugaldek ongizatea guztion esku dagoela esan du, eta bide horretan, «denon artean» lan egin behar dela gogoratu du.



Tolosaldeko udal ordezkariak Andoaingo Garbigunearen inaugurazio ekitaldian, atzo. ASIER IMAZ

Iñaki Errazkin Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatuak Ugaldek esana berretsi zuen, «hondakin kudeaketa egoki batera begira», beste urrats bat gehiago dela esatean. Ondorioz, Errazkinek eskualdeko udalak eta herritarrek zoriondu zituen Andoaingo Garbigunearen inaugurazio ekitaldian.

Ingurumen diputatuak etxeko lanak hartu zituen atzokoan: «Herritarrei esfortzu bat egiteko eskatzen diegu, baina gure aldetik, azpiegituretan, zerbitzuetan... urratsak eman beharra dauzkagu aipatzen ditugun helburu horietara iristeko».

Iñaki Errazkinek gipuzkoarrek

duten erronka gogoratu zuen, hau da, 2016rako sortzen dituzten hondakinen %60 birziklatzea. Horretarako bi gauza behar dira Ingurumen diputatuaren esanetan: «Gure aldetik, azpiegiturek ezartzea, eta herritarren aldetik, esfortzu txiki bat egitea hondakinen birziklapenean».

Guzti horregatik, eta behin etxeko

lanak zehaztuta, Iñaki Errazkin Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatuak Tolosaldeko biztanleei deialdia luzatu zien Andoaindik: «Garbigune hau erabil dezatela eskatuko nieke, benetan praktikoa izan dadin, eta ematen ari garen aurrerapauso hauek emaitzarik onenak eman ditzaten».

## IRAGARKI LABURRAK

### SALGAI:

**Etxebizitza salgai Orexan.** Eguzkitsua eta bista izugarriak.

Hiru planta ditu, 350 metro kuadro eta terrenoa.

Interesatuak: 635730398 edo eareso18@yahoo.es

**Lokala salgai Ibarren:** Ibarren 130 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai, okindegi, taberna edo jatetxerako, terraza bikainarekin.

Interesatuak: 636 143514.

### LAN BILA:

Etxeko lanetarako: goizetan, 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka.

Interesatuak: 943 696882 / 606 521992

Santa Luzia, 17 • 20400 • TOLOSA • Tel.: 943 65 11 47 • e-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • web: www.tolosaldea.com			
<b>LANERAKO PRESTAKUNTZA</b> lehenengo hiru hilabeteko eskaintza		<b>Doaneko ikastaroak</b>	
<b>Profesionaltasun ziurtagiria:</b> Administrazio kudeaketa jarduerak	Iraupena	Hasiera data	Asteleheneetik ostegunera 18:00 - 21:00
Sistema eragilea ( <b>Windows</b> ), Informazio bilaketa: Internet / Intranet eta posta elektronikoa	30	2013-10-14	
Aplikazio informatikoak testuak tratatzeko ( <b>Word</b> )	30	2013-12-02	
Kontabilitate plan orokoa	90	2013-11-25	
<b>Profesionaltasun ziurtagiria:</b> Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa			
Makinak, ekipoak eta erremintak prestatzea txirbil harroketa bidezko mekanizazio-eragiketetan ( <b>Tornua</b> )	80	2013-10-14	
Txirbil-harroketa bidezko mekanizaziorako fabrikazio-prozesu osagarriak ( <b>Automatismo neumatiko eta hidraulikoak</b> )	70	2013-12-02	
Ikastaro teknikoak			
<b>CAD 2D</b> oinarrikoa	40	2013-10-21	
Planoen interpretazioa soldaduran	60	2013-10-21	
Altzairu karbonozko <b>TIG</b> soldadura	90	2013-12-02	
Oinarriko automatismo programagarriak ( <b>SIEMENS S7</b> )	35	2013-12-02	
Eskorga jasotzaileen erabilera	24	2013-12-02	
	Informazio eta izen emateak:	Web bidez: www.tolosaldea.com Institutuan: 943 651 147 • idazkaritza@tolosaldea.com	

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga  
Biologoa

# Ataria



Hitzez hitz, zuen etheen barrena iritsi ginela uste genuenean, zelako sorpresa, oraindik atarian gaudela jakitea! Beraz, hemenxe jarraitu beharko dugu, zuen ataritik sukalde barruraino iritsi arte.

Zorionez, nire irakurleen ia gehiengeok badute etxea, beraz badute etxeko ataria, beraz interesgarria egingo zaie jakitea, bestelako bizidunek ere badutela beren etxetoetan ataria eta bizidunen munduan gertatzen den bezala, atari guztiak oso interesgarriak eta dibertigarriak dira.

Etxeko ataririk beldurgarriena, tranpa bidez ehizatzen duten armiarmena da. Armiarma guztiak ez dute sarearen bidez ehizatzen, izan ere, sarea egitea nahiko asmatzuzun modernoa izan da armiarmen munduan. Armiarma talde batzuk badira, beren etxetxoan lurpean zulo bat eginez eraikitzen dutenak eta gero atetxo borobil bat egiten diete, ura eta bestelako animaliak sar ez daitezten. Armiarma hauek noski, jan egin behar dute, baina dirudieenez etxetxotik ateratzea kosta egiten zaie, beraz etxeko atarian prestatzen dute beraien ehizatze tranpa.

Sarea erabiliz, etxeko atarian sare fin batez egindako alfonbratxo zabaltzen dute, ostean, atea ixten dute eta atearen beste aldean geratzen dira, inor bere etxeko atarira noiz etorriko. Ez al du honek ipuin bat ematen?

Halako batean bere etxeko atariko alfonbratxo intsektu edo narrasti txiki batek zapaltzen duenean, armiarmaren hanka finetara, bere biktimak sortutako birazioak etortzen dira, eta gutxien espero denean, ziztu bizian atea ireki eta bere gonbidatua kafe bat hartzera eramaten du bere etxera. Armiarma hauen etxeko atarira ez hurbildu!

Armiarmen defendatzailea izanik, esan, armiarma hauek ez dute la hiru zentimetro baino gehiago neurtzen eta gure lur honetan nahiko gutxi daudela. Beraz, igandelari, pasealari, bokatalari edo mendigoilari... ibili lasai gure lurretan.

Beste atari benetan interesgarria, zenbait hegaztiren habi ataria da. Dakizueenez, hegazti arrak dira, emea erakartzen gizaki arrak baino lan gehixeago hartzen duten animaliak. Taberna zulo ilunean, eskuin eskuan kalimotxo hartuta eta ezker eskua barran ipinita egotea ez da modu egokia emea erakartzeko.

Zenbait hegaztik, kantu eta dantza egiten duen heinean, badira hegazti batzuk habi goxo bat eraiki

eta bere habi ataria apaindu egiten dutenak. Benetan harraritu zinatekete nolako apaingarri konplexuak ipintzen dituzten! Bai, hegazti ar hauek dekorazio ikastaroak egin behar izan dituzte emeak erakartzeko, hegaztien munduan ere Gipuzkoan bezala, ligatzea zail da nonbait!

Agian hegazti arrek, kalimotxo eta barraren estrategia probatu behar ote dute?

Ederki dakigunez, etxeko ataria da, gure etxeko eremurik garrantzitsuena. Izan ere ataria bisitari batek igarotzen badu, jada gure etxe barruan sartzen da eta agian bisitari hau ez da batere «egokia». Ez da harriztekoa beraz, bizidunek beraien etxe atariak oso ongi babestea. Adibide garbia lur-sagu eta lurpean bizi diren ugaztun txikiak dira.

Tamaina txiki hau izanik eta babesteko armarik ez dutenez, habiak lurpean egiten dituzte eta habiak elkarrekin tunel bidez komunikatzen dituzte, oso galeria konplexuak osatuz eta leku seguru bat sortuz beraiantzat eta beren kumetxoentzat. Baina alferrik da, zure etxea labirinto konplexu bat izatea, zure odolaren tenperatura atzematen duen suge bat zure etxean sartzen bada.

Horregatik, lurpeko saguek eta animalia txikiak, beren buru aurrean hortz zorrotzak dituzte. Jateko balio diete, baina beren etxeko ataria oso ongi babesten dute beraiekin. Honela beraien etxeko ataritik suge bat sartzen bada, aurrez aurre, lauzpabost hortz zorrotzekin topatzen da, eta nola atariak tunel forma duen, ezin ekidin hortz horiei. Hemen, ugaztun txiki, koitadu eta hortz zorrotzduenak, suge luze eta haragijale handiari gauzak oso zail ipintzen dizkio, bere etxeko atarian egotearen abantaila. Sugeak, lur-sagu hau baso irekian harrapatuko balu, gauzak beste modu batera izango ziren!

Ikusi duzueenez, atariak ezinbestekoak izan dira bizidunen historian, beraz, zaindu zuen etxe atariak, izan ere, atarira iristen baitira gertuen ditugun albisteak eta hitzak.

Zuen ataria ere da bioaniztasunetik@hotmail.com eta @bioaniztasuneti, zuen hitzak eta argazkiak dira, ekokulturaren txoko xume honen atariaren beste aldean badela norbait esaten didatenak.

Eta gure familiaren atarira ere heldu da beste bizidun txiki eta potolo bat, aupa Xabi! Ongi etorri gurera!

## Tolosaldea

## Irudia Tolosa



### Herbeheretako ikasleei ongietorria eman diete

Holandako Sint Ursula ikastetxeko ikasleak iritsi dira Tolosara, Orixe Ikastetxeko ikasleekin ingelesa praktikatzeko elkartrukaketa egiteko. Datozen egunotan ingelesez hitz egiteaz gain, eskualdea ezagu-

tzeko aukera izango dute. Atzokoan, Hasier De Los Rios-ek harrera egin zien udaletxean. Tolosari eta bere ohiturei buruzko bideo bat jarri zieten, eta inauteri eta eskopeteroekin txundituta geratu ziren.

## Irudia Ugarte



### Asteburuan festak ospatu dituzte Ugarten

Hiru eguneko festa izan dute Ugarten. Ostiralean herri afari jendetsuak eman zien hasiera jaiari. Larunbatean, berriz, haurrak eta gazteak izan ziren protagonista nagusiak; zaldiekin ibilaldia egin zuten Ugarten zehar, eta puzgarriak eta txokolate beroa ere izan zuten dastagai, besteak beste. Igande iluntzean Laja eta Mikel trikitalarien emanaldiarekin eman zitzaizen amaiera aurtengo festei.

ten zehar, eta puzgarriak eta txokolate beroa ere izan zuten dastagai, besteak beste. Igande iluntzean Laja eta Mikel trikitalarien emanaldiarekin eman zitzaizen amaiera aurtengo festei.

## Irudia Ikaztegieta



### Azoka berezia egin dute Ikaztegietan

Azoka berezia egin dute asteburuan Ikaztegietan. Bertako nahiz kanpotik etorritako jaki eta artisau produktuen postuak eta animaliak izan ziren bertan. Umeek ere tailerrak egin zituzten, eta helduek sagar-

do kata batean parte hartzeko aukera izan zuten. Bazkaltzeko txekorra erre zuten burruntzian, eta ia ehun herritar elkartu ziren. Ondoren, trikitalariek alaitu zuten arratsaldea.



Kilometroak 2013



Garbiketa batzordea aritu zen guneetako hondakinak biltzen, eta baita Laskoraingo ikasleak ere. ATARIA

# Inoizko biharamunik gozoena

Txukuntze lanen eguna izan zen atzokoa. Laskorain Ikastolako kideek biharamun gozoa izan zuten, ordea, igandeko arrakastaren bultzadaz, eta «nekeari poza gailendu» zitzaion.

## ITZEA URKIZU ARSUAGA

Urtebeteko lana egun batean pilatu, eta urduritasuna eta tentsioa gozamen bilakatu zitzaizkien igandean, Kilometroak festako antolatzaileei. Aspaldiko biharamunik gozoena bizi izango zute atzo, askok eta askok, eta baita Jone Urteaga Laskorain ikastolako zuzendariak ere.

Eguna zitzu batean joan zitzaion ikastolako zuzendariari, atzo goizean Ataria irratiaren egindako elkarrizketan azaldu zuenaren arabera: «Ajea eta satisfakzioa sentitzen ditut, baina bigarren sentimendua gailentzen da».

Ahora! lelotzat izan duen aurtengo Kilometroak jaiko hamaika irudi gordeko ditu memorian Urteagak, eta hauetariko zenbait aipatu zituen irratsaioan: «Inauterietan, Dianatik bueltan jende guztia gauzak prestatzen ari deneko sentazio bera izan nuen goizean, eta jendetzaren irudia ere gordeta dut. Horrez gain, bizi

izan genituen une hunkigarriak zagarriak izan ziren, eta San Estebango bukaera ere oso-oso polita izan zen. Ez genuen eguna bukatzerik nahi».

Horrela, jaiaren arrakastan gain, Ahora! leloaren mezuak ere bide berri bat ireki duela azpimarratu zuen, eta euskararen erabileran aurrera egiteko balioko duela: «Atzoko festa antolatzeko gaitasuna duen komunitatea, indartu egiten da halako ekitaldi baten ondoren».

## 20.000 lagun trenez

Ikastolako antolatzaileek garraio publikoa erabiltzeko deia erantzun ona eman zieten bisitariek, eta Renfek azaldu duenez, 20.000 lagun etorri ziren Tolosara, 79 trenetan. Garbiketari dagokionez, igandeko hondakinak garbiketa batzordeak jaso zituen arren, ikasleak aritu ziren atzo, gunez gune, festak utzitako biltzen; San Esteban eta San Blas izan ziren eremu zikinduenak.

Aloña Lertxundi eta Nestor Aldazabal • [Laskoraingo ikasleak](#)

## «Espero baino garbiagoa iruditu zaigu»

I. GARCIA LANDA

Batxilergoko ikasleak dira Aloña Lertxundi eta Nestor Aldazabal. Igandean ere lanean aritu ziren, eta lehen aldiz ezagutu dute Kilometroak festaren biharamuna. Garbiketa saioa, dena den, ez zaie hain gogorra suertatu.

### Zer moduz doa garbiketa eguna?

Zikin samarra, baina beharrezkoa da hondakin hauek guztiak biltzea.

### Aurretik antolatuta zegoen astelehen goizeko garbiketa. Atzo kontu gehiago izan zenuten hondakinekin horregatik?

Beti bezela ibili ginen, baina egia da nobere herrian kontu gehiagorekin ibiltzen dela. Dena den, Kilometroak

Tolosan ospatuko zela jakin genuen egunaz geroztik, bagenekien garbitzea egokituko zitzaigula.

### Gogorra izaten ari al da astelehen goiza?

Ez pentsa, jende dezente ari gara lanean, eta horrek arinagoa egiten du jarduna.

### Kilometroak jaiaren biharamuneko lanetan lehen aldiz ari zarete, ezta?

Bai, bai, lehen garbiketa Kilometroak izan dira.

### Etorritakoan nola topatu duzue?

Egia esan espero baino garbixagoa iruditu zaigu. Putzuak eta daude, baina hondakin gehiago espero genuen. Iaz, adibidez, Andoain zikina gozokoela zirudien, beraz, zorte pixka bat izan dugu alde horretatik.

### Atzo ere ariko zineten zer baitetan lanean.

Bai. Gure kurtsoari trafikoan laguntzeko ardura jarri zioten, eta goizez aritu ginen horretan. Arratsaldean, ordea, kontzertuetara joateko aukera izan genuen, eta giroaz gozatu genuen.

### Nola joan zen, bada, atzoko festa eguna?

Gustura ibili ginen. Sekulako jendetza etorri zen; San Blasen Vendettaren kontzertua izan ginen, eta gehiegizkoa izan zen hura.

### San Estebanera gerturatu zineten gero?

Komeriak izan genituen eszenatik gertu egoteko, eta atzean geratu behar izan genuen.

Ainhoa Artolazabal • [Laskoraingo irakaslea](#)

## «Gazteenen guneetan topatu dugu zikinkeria gehien»

I. GARCIA LANDA

2013ko Kilometroak festan, garbiketa batzordeko arduradunetako bat izan da Ainhoa Artolazabal. Horrez gain, Laskoraingo irakaslea ere bada hezkuntza fisikoan, eta ikasleekin hondakinak biltzen aritu da.

### Nola antolatu duzue KMKren hurrengo eguneko garbiketa?

DBHko lehen mailatik, batxilergo bitarteko ikasleak mailaz maila antolatu ditugu, guneetan barrena. Hori bai, San Estebango gunea Gati-buren kontzertuaren ondoren nola geratu zen ikusita, hemengo zabor bilketarako jende gehiago elkartzearabaki dugu.

### Adinaren arabera ikasleen lana desberdina izango da, ezta?

Bai, hala da. Gaztetxoek ikastola inguruan geratu dira; DBHkoak, berriz, San Blasera joan dira, eta Batxilergoko ikasleak etorri dira San Estebanera.

### Zikinen geratu zen gunea zein da?

Esan bezala San Estebanekoa, izan ere, azken kontzertua bertan izan zen. 19:15 inguruan amaitu zen, eta narrats samar geratu zen egia esan. San Blasen ere, Vendettarekin, gunea zikina geratu zen, baina 14:45ak ziren, eta iluntzera arte denbora izan genuen belazea txukuntzeko.

### Bildutako hondakin kopurua aurrei-

### kusitakoa izan al da, gutxi-gorabehera?


Gazte gehien bildu zen tokietan zikinkeria gehien topatzea espero genuen, eta halaxe izan da. Lasaiagoak ziren gunean, berriz, askoz ere garbiago geratu ziren. Esperotakoa bete da, beraz.

### Gaur egun osoa eramango al duzue garbiketa lanetan?

Hasiera batean goizeko lana izango da, hala aurreikusitako dugu behinik behin, batxilergoko ikasleek ez baitute klaserik arratsaldean. Astelehen goizeko lana, beraz, gunea garbitzea izango da. DBHko ikasleak, berriz, klasera joango dira arratsaldean.



Kilometroak 2013



Jendetzaren olatuaren irudiez gain, gune txikietan erromeria eta bestelako musika taldeen eskaintza izan zen. Ibilbideari garrantzia eman nahian, txarangei jarraituz askok osatu zuten zirkuitua. Trenez 20.000 lagun inguru etorri ziren ikastolen festara, eta aldarrikapenerako gune ere bilakatu zen Kilometroak, IRPHren aurkakoena kasu. I. URKIZU / M. IRAOLA / A. OIARTZABAL



**Kirol emaitzak**

**#Tolosaldea Txanpions**



**Areto futbola**

**BIGARREN B MAILA**  
**Laugarren jardunaldia**  
 Sala Quinto FS -Ibarra- **5-2**

**Sailkapena**  
 1. San Juan 12p  
 2. Debarrena 9p  
 3. Zierbana 9p  
 4. Colo Colo 9p  
 5. Atenea Ikusnet 7p  
 6. Sala Quinto 6p  
 7. Pinseque 6p  
 8. C. Inter Moviestar 6p  
 9. Xota 6p  
 10. Santurtzi 4p  
 13. Ibarra 3p

**Hurrengo jardunaldia**  
 Ibarra-Arnedo

**HIRUGARREN MAILA**  
**Hirugarren jardunaldia**  
 Goierri-Egintza **11-6**  
 Laskorain-Hirukide **7-3**

**Sailkapena**  
 1. Egintza 6p  
 2. Aurrera Vitoria 6p  
 3. Durango 6p  
 4. Laskorain 6p  
 5. Tolosala Hirukide 6p  
 6. Inter Eder 5p  
 7. Goierri 4p  
 4. Bilbo 4p  
 8. Buruntza 4p  
 14. Elorrioko Buskantza 3p  
 10. Uxoia 3p

**Hurrengo jardunaldia**  
 Egintza-Aurrera  
**Hirukide-Sasikoa**  
 Elorrio-Laskorain

**Futbola**

**ERREGIONAL OHOREZKOA**  
**Laugarren jardunaldia**  
 Beti Gazte-Tolosa **1-1**

**Sailkapena**  
 1. Beti Gazte 8p  
 2. Aurrera 7p

3. Hondarrabia 7p  
 4. Berio 7p  
 5. Anaitasuna 7p  
 6. Aloña Mendi 7p  
 7. Ostadar 7p  
 8. Antzuola 6p  
**14. Tolosa 4p**

**Hurrengo jardunaldia**  
 Tolosa-Real Union

**Saskibaloia**

**GIZONEZKOEN LEHEN MAILA**  
**C taldea**

**Lehen jardunaldia**  
 Tabirako-Bide bide **56-86**

**Sailkapena**  
**1. Bide Bide 2/0**  
 2. Mondragon Unib. 2/0  
 3. BIKO Zerbitzuak 2/0  
 4. Indautxu 2/0  
 5. Egues 1/1  
 6. Goierri 1/1

**Hurrengo jardunaldia**  
 Bide bide-La Peña Basket

**Pilota**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

**Kadeteak**  
 Elola-Jauregi (A-S) 15  
 Azkoitia 22  
**Jubenilak**  
 Urdapilleta-Beloki (A-S1) 22  
 Zestoa 21  
 Chiapuso-Urdapilleta (AS2) 22  
 Mundarro 8  
**Seniorrak**  
 Zelaia-Imaz (A-S1) 22  
 Añorga 11  
 Mugika-Labaka (A-S2) 15  
 Mundarro 22  
 Perez-Iturbe (A-S3) 17  
 Zestoa 22  
 Tartaloetxe 22  
 Belloso-Esnaola (A-S1) 5  
 Ilunpe1 14  
 Urbieta-Biain (A-S2) 22  
 Soraluze 4  
 Artola-Telletea (A-S1) 22

# Billabonatarrak Leverkusenen

Realak Bayer Leverkusenen aurka jokaturako partidak, Tolosaldeko ehunka realzale mugitu ditu Alemania aldera.

MIKEL ELIZEGI

Hainbat eta hainbat izan dira, Leverkusenera gerturatzeko realzaleek aukeratutako planak. Batzuk Municheko Oktobertfestera, besteak Stuttgarteko Canstatter Volkfestera nahiz Kolonia aldera; autobusa, kotxea eta egunean bertan hegaldia hartutakoak ere badira. Denak realarekiko zaletasunari mugarik jarri gabe. Gutxi izango dira Alemaniako garagardo, ukondo edo saltxitxak probatu gabe joan direnak. Plan guztiek zuten mugarririk bera, ordea: asteazkenean, iluntzeko 20:45ean, Leverkusenera Bayarena zelaian euren taldea Bayer Leverkusen taldearen aurka ikustea.

Realzaleek egun osoan zehar Leverkusenera kaleak txuri-urdinez jantzi zituzten, eta baziren Kolonian bertan azken ordura arte gelditu eta zuzenean zelaia joan zirenak ere, Kolonia Leverkusenera 12 bat minutura baitago trenetik. Jendea pixkana-pixkana agertzen joan zen Leverkusenera, eta giroa ere berotzen joan zen. Leverkusen ez da hiri handia, eta realzale gehienak bertan dagoen zentro komertzial baten inguruan bildu ziren.

Europako beste hainbat herritan bezela, zaila egiten da horrelako egunetan, hain gurea den poteatzeko ohitura ez mantentzea. Taberna pare bat aurkitu eta han elkartzen joan ziren errealek gehienak. Taberna batean denbora dezente eman genuen eta bertan zegoen jende mordoarekin, edalontziak altxor bilakatu ziren: edalontziarekin joan behar tabernara, han zerbeza edo kalimotxo bat nahi izanez gero. Ongi irakurri duzue bai, kalimotxo zer den ere ikasi zuten, ondo, taber-



Billabonatar taldea, Alemanian. ATARIA

na hartan. Bertako bezero batek barrara sartu behar izan zuen laguntzera, ez baitziren jende guztia zerbitzatzeko gai.

18:00ak aldera zentro komertzialaren plazara gerturatu, eta Europako partiduetan ohikoa den kalejirari hasiera eman genion. Esan gabe doa, bertako jendeak kalejira harriduraz ikusten zuela, eta bazen balkoietara gerturatzen zenik ere, kalejiraren oihuak entzun ostean. Kalejira zelaia heltzearekin batera, gero eta gehiago ginen bertan elkartutako realzaleak eta zelaia sartu aurretik giroa berotzen joan zen. Lehendabizi, zelaia kanpoan geundela Bayer Leverkusenera jokalarien autobusa iritsi zen zelaia eta zaleen artean pasatzeko momentuan txistu hotsak izan ziren nagusi. Ondoren, eta dirudienez trafiko arazoak medio, ordubete eskasaren faltan realeko jokalarien autobusa iritsi zen, eta zale guztion oihuen ar-

tean sartu zen autobusa zelai azpiko aparkalekura. Hura izan zen eguneko momenturik hunkigarrienetako bat.

Ondoren zelaian gertatutakoaren berririk baduzue. Leverkusenera taldeak hobeto ekin zion partidari, beren zelaian nagustiasuna azaldu nahian, baina pixkana realeko jokalariek baloia jabe egin ziren, eta nahiko berdinduta joan zen lehen zatia. 45. minutuan eta lehen zatian amaiera gertu zegoenean etorri zen beren lehen gola. Rolfes erdilaria eta kapitainak, hegaleko falta baten ostean buruz errematatu, eta Bravo atezainaren urrutzeaz baliatu zen, baloia hankarekin sartzeko. Ez zen gehiagorako denborarik izan lehen zatian, eta txuri-uridin aldagelara buru-makur joan ziren zaleen animo oihuen artean.

Bigarren zatian partida erabat aldatu zen...  
**Ikus osorik: ataria.info**



Jarraitu albisteak Twitter bidez  
 @tolosaldeataria 

Tolosaldeko Ataria  
 orrialdeari eman "atsegin dut"  

Sartu gure webgunean  
 ataria.info 

# Aimar Agirresarobek brontzea eskuratu du Espainiakoan

Bartzelona-Maresme triatloi proban lortutako emaitzarekin hirugarren sailkatu da Espainiakoan lasterkari tolosarra

I. TERRADILLOS

Aimar Agirresarobe triatleta tolosarra emaitza bikaina lortu du asteburuan Bartzelona aldean jokatu den triatloi proban. Bartzelona-Maresme triatloi proba izan dute, eta Espainiako txapelketan brontzea lortu du.

1.300 triatletek hartu zuten parte herenegun Kataluniako Maresme eskualdean jokatu zen proban. Hai-ze indartsuari, eta euri gogorrari aurre eginez, 3.800 metro igerian, 180 kilometro txirrinduarekin, eta 42 kilometro lasterka egin beharra izan zituzten kirolariek.

Sergio Marques portugaldarrak eta Eva Wutti austriarrak irabazi zuten proba. Espainiako Txapelketari dagokionez, Richard Calle izan zen garailea, 8:15:30eko denborarekin. Bigarren, Jose Luis Cano izan zen, 8:39:25eko denborarekin, eta Aimar Agirresarobek lortu zuen hiru-



Aimar Agirresarobe tolosarra, ikurrina eta Ahora banderarekin, helmugan. ATARIA

garren sailkatzea, 8:47:15eko denborarekin.

Tolosarrak ezin izan zuen bere herrian probaren egunean bertan os-

patzen ari ziren festan parte hartu, baina, kilometroei keinua eginez, Ahora! banderarekin eta ikurrinarekin helmugaratu zen.



Lauburuko futbolariak, beroketa ariketak egiten, partida hasi aurretik. ATARIA

## Porrota lauburu areto futbol taldearentzat

Lau jardunaldi eta gero, sailkapeneko hamahirugarren postuan kokatu da Ibarrako taldea

I. TERRADILLOS

Denboraldiko laugarren partida jokatu du iragan asteburuan Ibarrako Lauburu areto futbol taldeak, eta beste porrot batekin itzuli da etxera. Hain zuzen ere, 5-2 galdu zuten ibartarrek, Aragoiko (Espainia) Quinto

de Ebro taldearen aurka. Emaitza horrekin, Lauburu hamahirugarren da sailkapen orokorrean, hiru punturekin.

Gaizki hasi zen partida ibartarrentzat, etxeokak jarri baitziren aurretik. Lauburuk berdintzea lortu zuen, baina etxeokak izan ziren berriro ere bigarren zatian aurretik jarri zirenak. Lauburuk beste gol bat egitea lortu zuen, baina ez zen nahikoa izan aurkaria gaintzeko. Aitor Arevalo entrenatzaileak adierazi duenez, «emaitza txarra izan den arren, pozik gaude, taldeak jarrera oso ona erakutsi duelako».

## Emakumeentzako paleta ikastaroekin hasiko dira gaur

Tolosan eta Zizurkilen emango dituzte, astearte goizez eta arratsalde; urrian zehar eman ahalko dute izena interesatuek

I. TERRADILLOS

Zabalik dago emakumeentzako paleta ikastaroetan izen emateko epea. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren Emakumea Pilotari proiektuaren barruan kokatzen dira ikastaroak eta 18 urte gorako emakumeei zuzenduta daude. Tolosal-

deari dagokionez, Zizurkilen eta Tolosan emango dituzte.

Zizurkilgoa asteartean izango da, 19:15etik 20:45era, pilotalekuan. Tolosaldekoa, berriz, asteartean izango da, 09:00etatik 10:35era, Beotibar pilotalekuan. Gaur hasiko dira ikastaroak, eta ekainera bitarte luzatuko dira.

Izen emateei dagokionez, interesatuek urrian zehar ziango dute horretarako aukera. 115 euro ordaindu beharko da urte osoko ikastaroa. [ainhoa.pilota@kirolak.net](mailto:ainhoa.pilota@kirolak.net) helbidera idatzita edota 655719492 telefono zenbakira deituta eman ahalko da izena, edota edozein zalantza argitu.

## Aizkora Txapelketako kanporaketa, Asteasun

I. TERRADILLOS

Euskal Herriko lehen mailako Aizkora txapelketako kanporaketa hartuko du larunbatean Asteasun. Bertako frontoian izango da proba, 18:30ean hasita, eta Tolosaldeko hiru aizkolari ariko dira, Jexux Mari Mujika eta Unai Otaño ibartarrak

eta Jon Irazu zizurkildarra. Eurekin batera, Aitzol Atutxa, Iñaki Azurmen- di, Luis Txapartegi, Joxe Mari Olasagasti, Floren Nazabal, Antonio Senosiain, Jon Rekondo eta Ander Erasun ariko dira. 54 ontzako bi enbor, 60 ontzako 2 enbor eta 72 ontzako bi enbor ebakitzea izango da egin beharreko lana.

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak





Goiza



Arratsaldea

Goiza: Lainotuta  
Arratsaldea: Ostarteak  
Beroena: 21°  
Hotzeta: 12°

21°

13°

**Argitaratzailea:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Zuzendaria:** Ainhoa Oiarzabal.  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**E.P:** ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info  
**Papereko editorea:** Eneritz Maiz.  
**Interneteko editorea:** Imanol Garcia Landa.

**Irratiko editorea:** Jon Miranda.  
**Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818. tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.info  
**Villabona-Aitzondo:** 687 410 022. villabona-aitzondo@ataria.info  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@ataria.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@ataria.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@ataria.info

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:  
• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Aitzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



Tolosaldeko gizarte eragileak

**Ataria-k Bai Euskarari**



# Ataria.info, KMK13aren ispilu

Tolosaldeko Ataria-k Interneten eginiko lanak jarraipen handia izan du. Artikuluak, argazkiak, bideoak eta Ataria Irratian eginiko elkarrizketak zintzilikatu dira. Ikusgai izango dira datozen egunetan ere.

## A. OIARTZABAL- I. GARCIA LANDA

Hasiberria eta ondorioz ezezaguna izan arren oraindik, Ataria.info-ren webguneak bisita asko izan zituen atzo eta herenegun. Bi egunetan zehar, bi mila alditan baino gehiagotan egin dute klik webgunearen eduki batean edo bestean bertan sartu ziren irakurle eta ikus-entzuleek. Eduki ia denak kilometroei buruzkoak ziren; besteak beste, kazetariak festari buruz idatzitako kronikak, kilometroen protagonistei eginiko elkarrizketak eta ekitaldien bideoak zintzilikatu dira Ataria.info webgunean. Atzo, kilometroen biharamunari buruzko artikulua zen bisitatuenetako bat. Kilometroen festak herrian utzitako zikinkeria garbitzen ari ziren ikasleen lekukotza zetorren bertan, hainbat argazkirekin batera. Artikulu horrekin batera kilometroei buruz antolakuntzak eginiko balorazioa izan da gehien klikatu den artikuluetako bat, bai atzo eta baita herenegun iluntzean ere.

Kilometroetan lanean aritu diren bolondresen lekukotzek interes handia piztu dute Ataria.info-ren erabiltzaileengan. Hala, alkohol kontsumo arduratsua bultzatzeko asmoarekin kilometroen antolatzaileek martxan jarritako 'Ondo pasa, pasatu gabe' kanpainaren harira

hainbat gaztek igandean eginiko prebentzio lanaren berri ematen duen audioa erabiltzaile askok entzun dute.

## Youtuben eta sare sozialetan

Bideoz grabaturiko kronika guztiak, hamasei inguru, Atariaren youtubeko kanalean daude ikusgai. Eguna laburbilduko lukeen bideo berezi bat gaur jarriko da zintzilik interneten.

Sare sozialetan ere indartsu ekin dio Ataria.info-k. Hala, herenegun hasita 40 albiste inguru zabaldu ziren Twitter eta Facebook bidez. Horietako asko eta asko bertxiotu eta zabaldu zituzten ondoren.

Tolosaldeko Atariak eskualdeko eragileen eta norbanakoen ekarpenak jaso nahi ditu bere webgunean, eta horretarako sortu du Komunitatea atala. Bertan nahi duen orok eman dezake izena, eta bere albisteak, oharrak, iritziak... eman. Bestalde, Tolosaldeko Ataria Twitter bidez (@Tolosaldeataria) eta Facebook bitartez jarraitu daiteke.



**Gatibu taldearen bideoa.** Ikusmin handia sortu zuen talde bizaletarraren kontzertuak.

**Farmaziak**

**Gaur**  
Tolosa: Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.  
Gauekoa: Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

## Agenda

**DEIALDIAK**

**ALEGIA.** Alegiako kultur etxean, 19:00etan. Walter Agredo Kolonbiako preso politikoen elkartasunerako taldeko kideak hitzaldia emango du. Askapenak antolatuta izango da, eta Kolonbian zehazki transnazional europarren eragina azalduko du, nola etengabeko ustiaketa honek eragin zuzena duen, desplazamendua eta errepresioarekin ere.

**IBARRA.** Ez ohiko bilkura egingo du Ibarra Udalak, 19:00etan, pleno aretoan.

**TXARAMA.** Herri txikietan txertatzeko aukera ari dira eskaintzen, eta gaur, Txaraman, 09:00etatik aurrera izango da.

**TOLOSA.** Oargi mendi taldeak irteerak antatu ditu. Hilaren 13an Andarito medira joango dira, eta 18, 19 eta 20an, Tres Marias eta Castillo Mayor mendietara joango dira. Igandean, Andarito mendira igoko dira (1076m) Urkulu urtegitik. Lau ordu inguruko ibilbidea izango da. Goizeko 08:00etan abiatuko dira Usabal polikiroldegitik. Izena emateko [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) edo 688 69 86 42 telefono zenbakira deituz. Bost euro ordaindu behar dira bidaiarengatik.

**ERAKUSKETA**  
**TOLOSA.** GKO galerian, Pili Aguadoren erakusketa dago ikusgai.

**Mauka berria**

**GAURKO ESKAINTZA**

**Terapeutika edo kirol masajeko 5 saio Arin gimnasioan**

ARIN GIMNASIOA  
Donosti kalea, 15  
Errenteria 20100 - GIPIZKOA  
Tel., 943520348

**Prezioa 70€**

**www.mauka.eu**

**berria taldea**

**Urtebetetzeak Ezkontzak Jaioberriak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[ataria@ataria.info](mailto:ataria@ataria.info)